



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

8.Alea 1997ko Apirila

- **ELKARRIZKETA:**
Itziar Gurtubai,
ikastolako
andereñoa.
- **IKASTOLAREN
ZILARREZKO
EZTEIAK**
- **BERRIAK:**
Udaletxean
aldaketak



EUSKAL HERRIKO ITZULIA GATZAGAN

Jose Aranzabal S.L.

Elektrogailuak Iturriotz 15 79 15 16
Fagor Sukalde Altzairuak San Andres Auzoa 79 18 92
Arrasate



Equipamiento de cocinas
TV - Hifi - Videocámaras

Bº San Andrés
Tel. (943) 79 18 92

Iturriotz, 15
Tel. (943) 79 15 16

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 714407
 Udal Bulegoak 714532
 Udaltzaingoa 714407
 Euskaltegia 792168
 Kultur-Etxea 714688
 Gizarte-Laguntzailea 714688
 Kiroletxea 715328
 Liburutegia 714688
 Luis Eceiza 714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 714486
 Almen 714964
 Museo-Eskola 714688
 Ze Barri 714077
 Talde Antimilitarista 715028
 Irakasle Eskola 714157
 Osakidetza 714452
 Telesko 714917
 Taxia 714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 792800
 Renfe (Zumarraga) 721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 791419
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 088

Z E B A R R I ?

Argitaratzailea:

AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Joseba Rielo, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa.

Kolaboratzaileak: Karmelo Oñate, Ander Zabala, Iñaki Agiriano

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 1700 ale

“ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin”

ITZIAR GURTUBAI ITURBE-ORMAETXE
Ikastolako andereñoa

1-Noiztik zara irakaslea?

Orain dela 24 urtetik.

2-Zenbat urte daramatzazu Eskoriatzako ikastolan?

24 urteak hemen.

3-Zer iruditzen zaizkizu Eskoriatzako ikasleak?

Oso onak, badakizue umeak-ume.

4-Zenbat irakasle zaudete Eskoriatzako ikastolan?

Aurten 4; Olatz Beitia, Eli Izagirre, Rosa Elizburu eta ni. Gero ekintza berezi batzuetarako, Almeneko irakasle batzu etortzen dira: Musika ematera M^a Asun eta haurtxotekan Iñaki Galarra.

5-Nongoa zara?

Igorrekoa (Bizkaia).

6-Ikastolan lan egiteaz gain , zertan erabiltzen duzu zure denbora?

Nire familiarekin gehienbat.

7-Irakaslea izan ez bazina, zer aukera egingo zenukeen?

Gaztetatik hasi nintzen "Kili-kili" aldizkarian umeekin lanean eta gehiagotan ez dut pentsatu.

8-Zein aldaketa egingo zenuke alkatea bazina?

Entzumen eta adimen zabaleko izango nintzateke herritarrei entzuteko.

9-Zer iruditzen zaizu ZE BARRI aldizkaria?

Oso ondo eta garrantzitsua iruditzen zait hor ekitea.



Cuenta Joven
 de Caja Laboral
 El servicio
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren
 Kontu Gaztea.
 Zerbitzuetan
 osatuena.**


CAJA LABORAL
 EUSKADIKO KUTXA




LENIZ
 ESKORIATZA

Aingeru Ibiltokia, z/g.
 Tfnoa.: 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA
REPARACIONES LENIZ, C.B.

Jose Arana-Almen ikastola maiatzaren 10erako jaialdia prestatzen ari da, aurten 27 urte betetzen dituela eta zilarrezko ezteiak ospatzeko. Esan digutenez aipatzekoa da antolaketa lanetan aritzeko egin den deialdian jaso den erantzun ona. Lehenengo deialdira uste baino jende gehiago joan ei zen. Handik aurrera, antolaketa lana talde ezberdinetan banatu da : ekonomia taldea, azokaren antolaketa, bazkariaren ardura, giroketa, etab... Guztira zapatu danerako egitaraua osatu ahal izateko. Maiatzaren 10ean beraz egun polita izango dugu Eskoriatzan, ea erantzuna eta jendearen partaidetza egun honek merezi duen bestekoa den.

MAIATZAK 10 - EGITARAUA

9'00 Etxafleroak-
 9'30 Txistulariekin herritik zehar kalejira.
 10'30 Eskoriatzako BANDA MUNIZIPALArekin kalejira.
 10'30 FERIXIE herriko plazan:
 Eskoriatzako baserrietako barazki, ogi, gazta...
 Eskoriatza eta inguruetako artesautza
 Taloa, txorizoa eta sagardoa



11'00 Haurrentzat JOKUAK, GAZTELU PUZGARRIAK Ikastolan eta TXAKUR LERAK S. Ana auzoan
 12'30 EUSKAL DANTZAK E. Gorosarri plazan
 13'00 OMENALDIA Ikastolaren sortzaileei, jubilatuen lokalean.
 13'30 Txikiteoa TRIKITIXArekin.
 14'15 TXALAPARTA herriko bolatokian
 14'30 BAZKARI POPULARRA frontoian
 16'30 Bazkal ondoren BERTSOLARIAK, EZUZTEKOAK, DANTZA... frontoian. Errifaren zozketa
 18'00 PAILAZOAK Ikastolan
 21'30 ETZAKIT taldearekin dantzaldia Eskoriatzako plazan.

Maiatzak 9,10,11: ERAKUSKETAK Kultur Aretoan
 Ikastolaren Historia ARGAZKIETAN
 Haur, gazte eta gurasoen ARTELANAK:
 Pintura, Eskultura, Larrua

IKASTOLAREN
 ZILARREZKO EZTEIAK



LAGUN-ARO ASEGURUAK

**LEGEZKOA
 FISKALA
 KONTULARIA
 LABORALA**

ALDETEC



-----TASAZIOAK
 -----PERITAZIOAK
 -----PROIEKTU ING.
 ___OBRA ZUZENDARITZAK
 -----ERREFORMAK

EUSKAL HERRIKO ITZULIAREN ATZENENGO BUELTAK

Euskal Herriko bueltie akabau zala, hamabost egun bete dien hontan, eztoz uste mereziko dauenik lehenau egunkarixetan ondo kontau dien gauzetan sartzerik. Danok dakitzue gutxi gora behera gertatutakuek kontetan; gutxi batzuk izengo die zeinek irabazi auen, edo erlojupeko probie nola joan zan jakingo eztauenak.

Euskal Herriko itzuliko azken etapiek Deba garaiko bazterrak astindu zittuen. Astindu esaten dot, ze, goixien goixetik hasi gitzen trafiko arazoak eukitten: kale batzuk lehen orduetatik itxi zittuen, goixeko probie ailegau zaniien barientioak eta bazter guztiok itxi zittuen. Batek baiño gehixauk komentau euen, istripu edo edozein larrialdigatik, bariente barik geratuko bagitze ze izango litzeken orduen. Bire barrixek eta holakuek ezte oso popularrak izeten baiñe premiñazkuek bai.

Baiñe dena etzan izen trabie eta prozesiñue. Gipuzkuako bazter hontako biztanliok pozik hartu gauen karrerie gure lurretara etortie. Eguakotz goixien lehenengo sektoriaren akabera Arrasaten izan zan espiñien.

Ha zan ilusiñua ha, eskolako umiek eukiena. Bire bazterretan trirrindularixek entzun zittuen lehengo ulu, txalo eta auparak eskolako umiek emun utzien. Berziñen txapela eskuratu euen umiek, ondiokan arpegixe gorrittu eitten jako kontetan hasten daniien, Berzinek berakin euki auen detallie.

Oiñ, goixeko etapiaz batzuk gustora geratu bazien be, atsaldien ikusi zan zergatik holako prueba bat ekartiek bentaja besterik ez dutzon ekarten herrixei . Ha zan jendetzie ha, Mondrauetik Gatzagainera batu zana. Sekule berba bat bestie baiño altuau entzun etxatienei be itzelezkuek entzuten jatiien. Hori bai, beti animuek emuteko eta ez futbolien eta holakuetan moduen, kontrarixuatik egundokuek esateko.

Txalo zaparradarik haundixenak geuriek jaso euen. Euskadiko taldekuekin ederto portau zien jarraitzailiek. Olanok jendiaren berotasune somau auen. Penie da etzalako disputetan etorri. Ba ete dau norberan herrixen irabaztie baño gauza ederraurik? Goguen eukiko dozue danok, Pellok, larogetapikuen, Beasaiñen, irabazittakue. Goixien Deskargako gaiñien ataratako aldea atsaldien kontrarrelojien eutsi ein utzenien. Mundiala izan zan orduko azañie.



IRENE-NA

Tfnoa.: 715078

AHALEGINTZEN GARA

GOLO
GAZTE
MODA

Arana kalea, 13
Tfnoa.: 71 42 99

Pub CIPRI'S

Behin etorri
Eta baietz berriz...

Euskaldun jentiek gauza txarrak be izango dittu, nola ez, baiño txirrindularixei erakusten dutzen kariñuek akaberarik eztauko. Txiaputxik, gorantza entrenetan oiela jaso zittuen animuek geure Zarrabeitiak be ez zittuen jaso. Gauza bera pasau zan gaiñetiko atzerritarrekin be.

Danan akaberan gauzak ederto ein ziela esan biher da. Hurrengue noiz eingo dan jendia hasi da preguntetan. Zorionik haundixenak antolatzaile eta laguntzaile danei.

Dana dala, gauza bi komentau gure nittuke organizaziñuei begire: Bat, Diputaziñoko kamiñeruek karrerie pasau aurretik, bire bazterrak garbiketako erakutsi auen ardurie, oiñ be, erakutsi biherko leukiela. Gatza ingurutik buelta bat emutie ez litxakiela gaizki etorriko. Ze zikin geratu diren bire bazterrak!. Bi, organizaziñuek sarrerie kobretiekin demaseko akatsa ein auela. Bailarako aiuntamentuek diru asko jarri euen karrerie ein zeixien. Herritar bakoitxak bere poltxikotik behin ordaindu badau zergatik eskatu biher jako barriro be pagetie?

Txarrerako neuken dana azkenerako itzi dotela esango duztazue, baiñe ez nittuke pasetan itxi gureko telebisinoko gorabeherak. ETBtik emun euen erlojupeko probien trasmisiñue etxakon iñori gustau. Txirrindulari gehixenak hasieran eta akaberan baino etzien ikusten. Euskal Herrixe gure bailarako irudi barek geratu zan, lau txakurraundi motorretan ez gastatziarren. Aukera politte izen zan geure txokuek helikopterotik erakusteko, baiña ezin izan gittuen ikusi. Hurrengo baten izen biherko da.



Txirrindularia pozik nesken animoekin

**EUSKAL
HERRIKO
ITZULIA**

BENTA-MOTZ

Gaztañadui kalea
Tfnoa.: 714822

GOIZEKO 6ETAN ZABALIK

EGUNEROKO MENUA 900 PTA.

CENTRO ÓPTICO

ESKORIATZA

Eduardo Gorosarri
Plaza, 1 bajo
Tf 71 52 82



TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

TOKI EDER

Taberna

Tfnoa.: 715438

*BOKADILO, AFARI eta
MERIENDAK*

• Argazkian duzuen hau **Benancio López** duzue, egun hauetan Eskoriatzan entrenatzen ari den **Euskadiko areto futboleko entrenatzailea**. Ekainerarte egongo dira Eskoriatzan, hil horren hasieran jokatu diren Autonomien arteko txapelketak prestatzeko. Benanciok oso ongi hitzegin digu Eskoriatzako kantxari buruz eta baikor ageri zaigu batez ere nesken taldeak txapelketa hontan egin dezakeen lanarekin.



• **Apirilak 7 eta 11 bitartean** esperientzia berri bat eraman zen aurrera **Udal Liburutegian**. Iñaki Galarra, bertako arduradunak kontatu digunez, **1000 liburutik** gora eta bost aldizkariren ale desberdinak **banatu ziren**. Pertsona bakoitzak egunean bi liburu har zitzakeen ezer ordaindu gabe eta betirako. Liburu hauek bi motatakoak ziren: Erakunde Publikoek bidalitakoak eta azken urteetan irakurgelatik erretiratutakoak. Hauek berziklatzera bidaltzea baino herritarrei eskaintzea hobe zela pentsatu zen.

Galarrak dionez, tamalez liburu hauetako asko ez dira irakurriko baina gutxiren batzuk irakurriak badira mereziko du esperientziak. Bestalde, gaur egun liburutegiaren informatizazioa bukatzen ari direla ere kontatu digu, laster txartel berri bat emango zaiolarik bazkide bakoitzari. Honez gain, maiatza eta ekainerako itsasoari buruzko hainbat ekimen ere ari dira muntatzen, oraindik zehazteke badaude ere.

• Konturatuko zinetenez, gure **herriko kanpaia eta erlojua modernizatu** egin dira. Egunean hiru aldiz musika eta guzti entzun ditzakegu orduak. Hurrengo pausua, elizako erlojua argizatzea izango da. Gutxienez ordua ondo ematen duen bitartean...



• Sagardoa edateko estilo bitxia erakutsi zuten joan den **apirilaren 13an** Eskoriatzatik mendi irteerara joan zirenetako batzuk! Guztira berrogeitamar bat lagun joan ziren Aura Gaztelura eta gero Amezketara, sagardotegira. Kriston dantzak bota omen zituzten bueltako autobusean!

• Joan zen martxoaren 31ean, Pazko astelehenez Uharte Arakilen izandako zoritxarreko tren istripuan Eskoriatzako familia bat suertatu zen tartean. Zorionez, Olatz eta Izaro Beitia eta berauen ama Amaia Leibar egun gutxitan irten ziren ospitaleetik.



Familiako aitak, Txomin Beitia, berriz, zauri larriagoak jasan zituen istripua eta aste batzuk U.V.I.-n pasatu bazituen ere, jadanik irten da bertatik eta gure artean daukagu. Lerro hauetatik lehenbaitlehen guztiz sendatuta egon dadila opa diogu Txomini.

UDALETXEAN ALDAKETAK

Apirilaren hasieran Herri Batasunako zinogotzietan orain arte izan dituzten Batzorde Informatzaileetako Lehendakariak kentzea erabaki zuen Eskoriatzako Alkatetzak. Ondorioz, gobernu batzordetik kanpo geratu dira. Batzordeek honako konposaketa dute orain:

- **Angel Kortazarrek** zuzentzen zuen *Zerbitzuak eta Ingurugiro Batzordea* **Asier Sologaitsoaren** esku geratu da.
- **Edorta Zubizarretak** zuzentzen zuen *Gazteria eta Ondarea Batzordea* **alkatetzaren** esku geratu da.

Eskoriatzako Herri Batasunako kideek sorpresaz hartu dute erabakia. Beraien esanetan komisiotan gustora ari ziren lanean eta erabaki honek ez dauka zerikusirik komisiotan egiten ari zen lanarekin, hauetaz kanpo gertatu diren beste kontu batzurekin baizik (aurrekontuen onarpenean izandako arazoa, ...).

Alkatearekin hitzegiterik ez dugu lortu, baina Udaletxetik komentatu denez, zinegotzi batzurekin izandako konfidantza giroaren etena izan da jokaera honen arrazoia.

AKEITA

TABERNA

Setatik zabalik

Tfnoa.: 715094


KAFE, PINTXO eta BOKADILLOAK

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

fundazioa
fundación



BEKAK

· Eusko Jaurlaritzak, **Kanpo Merkataritzaren** arloan adituak prestatzeko 25 bekarako deialdia zabaldu du, ekonomia, enpresa, zuzenbidea, injineritza edo publizitate lizenziatuentzat. Epea: maiatzak 15.

· Gipuzkoako Diputazioak **Kultura arloko** beketarako deialdia ireki du. Modalitateak:

a) Musika, dantza eta antzerki arloetan ikasketak egiteko bekak.

b) Arte platiko, ikus-entzunezko, argazkigintza, literatur sorkuntza eta musika konposaketa arloak promozionatzeko bekak.

c) "Nikanor Zabaleta" musika beka.

d) Historia ikerketako bi beka.

e) Iraupen laburreko arte-eremuko jardueretan buldu edo parte harzeko laguntza poltsak.

Hauek guztiak eskuratzeko epea; maiatzak 30.

· Gipuzkoako Diputazioak **historia ikerketako** bi beka atera ditu. Baldintzak: lizentziatura ikasketak (azken lau urteotan bukatuta), Gipuzkoan bizitzea eta ikerketa proiektu bat aurkeztea. Epea: maiatzak 30.

· "La Caixa" Fundazioak bekak kaleratu ditu **atzerrian graduosteko ikasketak** osatzeko. a) Alemanian, 97-98 ikasturterako eskaera epea: apirilak 30. b) Estatu Batuetan eta Britainia Handian 98-99 ikasturterako eskaera epea: ekainak 27.

· "Grupo Endesa" k, **arte plastikoetarako** bekak antolatu ditu, arte mota hau lantzen duten artisten lanak saritzeko. Epea: ekainak 10.

· Eusko Jaurlaritzak, Euskal Autonomi Elkarte eta Erresuma Batuko **ikertzaileen arteko elkartrukaketak** finantziatzeko dirulaguntzak aurrikusi ditu. Epea: irailak 15.

DIPUTAZIOKO UDALEKUAK eta OPORRALDIAK

· 14-17 urte bitartekoentzat, egonaldi ezberdinak Iparraldean, Nafarroan, Zuazan, Toledon, Valencian, ... eta ingeles udalekuak Seguran uztailean eta abuztuan. Aurreinskripzio epea: apirilaren 24tik maiatzaren 7ra.

· 18-29 urte bitarteko gazteentzat, kirol abentura Huescan eta Leridan, mendi trabesia Aiguestortesén, Iparraldea mendibizikletaz, ingeles egonaldiak, ... Izen ematea: ekainaren 2tik 27ra.

LANA

· Egues Araneko Udalak **aparejadore lanpostu bat** atera du. Epea: maiatzak 4.

· Donostiako Udalak, lanpostu batzuk bete nahi ditu: trafikoko laguntzaile teknikoa, kartografi digitalizazioko teknikaria, administrazio eta idazkaritzako arduraduna, kultur etxeko arduraduna, argibide, orientazio eta dokumentazioa/enplegurako goi mailako teknikaria, trafikoko goi mailako teknikaria, bideetako ingeniaria, industri ingeniari teknikoa eta erdi mailako trafiko teknikaria. Epea: deialdia EBOan argitaratu zain gelditzen da.

IKASTAROAK

· LH II ikasketak eginda dituzten langabetuei zuzendutako **egiaztatzaile mekanikoa eta trokelgintza ikastaroak**, IRAUNKOREk antolatuta. Maiatzetik aurrera. Matrikula doan.

UDAKO IKASTAROAK

· EHU-UPVk, udako ikastaroen programa plazaratu du. Izena emateko epea, maiatzaren 8an hasi eta matrikula kopurua bete arte zabalik izango da.

LEHIAKETAK

· **Ipuin erotikoen lehiaketa** Euskarabila, Basauriko euskaldunon elkarteak antolatua. Epea: maiatzak 14.

· Hondarrabiako Udalak **narrazio erotikoen lehiaketa** antolatu du, euskaraz zein gaztelaniaz, prosa, bertsoa, poesia, ipuina, komikia, ... Epea: maiatzak 15.

· EHU-UPVk, **fantasia ipuin laburren V.** unibertsitate lehiaketa antolatu du. Epea: maiatzak 15.

· Oreretako Udalak, "Madalenak 97" **kartel lehiaketa** antolatu du. Epea: maiatzak 16.

· Eibarreko San Juanak iragartzeko **kartel lehiaketa** antolatu da. Epea: maiatzak 16.

· Bergarako Jardunen eskutik, V. **Komiki Lehiaketa** antolatu da. Lanak aurkezteko epea: ekainak 6.

· Estatuko Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministeritzak, arrazakeria gaitzat hartuta, **argazki lehiaketa** antolatu du. Epea: ekainak 9.

· Eskoriatzako San Pedro jaietarako **egitarauaren azala egiteko lehiaketa** oinarriak kalean daude. Oinarriak ikusi nahi dituenak Kultur Etxean eskuratu ahal izango ditu.

Pub ALDATZ

Tfnoa.: 714171

Musika ona entzun dezazun**URRESTILLA**

TABERNA

Tfnoa.: 714809

Giro ona berandurarte



30 bat urte dira argazkia Jose Arana eskola aurrean atera zela. Ezkerretik eskumara eta goitik behera:

Joaquin Arroyo, Iñaki Azkarate, Uribetxebarria(Patxikopablarena), Javier Zabala, "Guti", Sandalo Encina, (???), Tomas Azkarate (Venezuelan), Valentin Zurbano, (???), atzian dauden mutikoak ezin ditugu ezagutu.

Juanjo Eraña, (???), (???), Iñaki Zurutuza, Mikel Urcelay, Domingo Dominguez, Vazquez, Javier Belategi, Segura, Ander Isasmendi, Santi Salazar.

Pedro Apraiz, Gotzon Armendariz, (???), Barandiaran, Gamboa, Ignacio Leceta, Alday??, Galan, Vita, Florentino, Erruzo. Maisua (Agustin).

Maiatzak 3: Aitzorrotz eguna

Maiatzak 10: Ikastolaren zilarrezko ezteiak

Maiatzak 11, igandea, Senpereko aintziran. Urtero bezala euskararen alde, iparraldeko ikastolei laguntza pixkat emango diegu. Bertan ikusiko garelakoan gaude. Autobusean joateko ohiko tokietan eman izena.

HERRI URRATS

Maiatzak 25, igandea, Leioan Ibialdia. Hona ere joan beharra dago, euskararen alde, ikastolen alde jarduteko. Jaia egiteaz bat, gure hizkuntzari bultzadatxo bat eman diezaiozun, beharra dauka eta!

IBILALDIA

DORLETA
Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 71 51 20

KEA
Barruko eta kanpoko landareak
Arrainak eta Arrainontziak
Txakurrentzako pentsua
Tfnoa.: 943: 71 44 04
Aranburuzabala k., 30

**HEMEN ZURE
PUBLIZITATEA**